

lumatik
HERRIAK



ZAINTZA FEMINISTAK

GURE GORPUTZ-LURRALDEA DEFENDATZEKO



Textuak

Denisse Ariana Larrondo (AKA Emilia)

Diseinu grafikoa

Iker Domínguez

Ilustrazioak

Bea Aparicio

Itzulpena

Iñigo Gallastegi

Koordinazioa

Lumaltik Herriak (Juana Canga · Idily Mérida · Cristina Plaza)



.....

AURKIBIDEA

SARRERA	3
1. LURRALDEAREN DEFENTSARAKO ESKOLA IBILTARIA	5
1.1 BARNE INDARREKIN BAT EGITEN	7
1.2 ARTEA ERABILIZ (BER)ERAIKITZEN HASTEKO	13
1.3 GURE ARTEAN (BER)EZAGUTZEN	17
2. ERDIALDEKO AMERIKAKO DEFENDATZAILEEKIN SOLASALDIAN	27
3. ERRETIRO FEMINISTA, AUTOZAIN- TZARAKO ESPAZIO KOLEKTIBO BATEN ALDEKO APUSTUA	39
GOMENDIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK	57

.....

SARRERA

Lurraldearen eta gorputz-lurraldearen babes eta defentsa eguneroko indarra hartzen duen aldarrikapena da. Hegoalde Globaleko lurraldeen eta gorputz feminizatuen ustiatze eta esplotazioak lurraldearen eta Hegoalde Globalaren arteko harreman asimetrico eta bidegabea iraunarazten du. Migrazioari buruzko ikuspegia erabat alboratua da, migrazioa eragiten duten faktore gisa pobrezia eta giza eskubideekiko urratzeak adieraztera soilik mugatzen baita sarritan, baina ez da adierazten lpar Globalak faktore horien eraketan eta biztanleria bere lurraldeetatik kanporatzean duen inplikazioa. Beraz, narrazio hegemoniko kolonialak zalantzan jartzea eta haustea ezinbestekoa suertatzen da.

Lurraldeen eta emakumeen arteko harreman desparekotasunekin behin betiko amaitzeko, orotariko emakumeren arteko aho-tsei lehentasuna emango dioten espazioak sortzea beharrezkoa dugu, elkar ezagutu eta sare feministak ehuntzeko, errespetutik eta maitasunetik ehuntzeko, baina baita gure ezberdintasunak eta batzuentzat soilik diren pribilegioen inguruan hausnartzeko ere.

Proiektu horretan, Abya Ayalako giza eskubideen eta lurraldearen aldeko defendatzaile eta aktibistek izandako esperientziak entzun ahal izan ziren, eta emakume migratuek aurre egiten dieten prekaritate eta diskriminazio bizipenak nabarmendu ziren, baina baita ikaskuntza eta ahalduzko esperientziak elkartrukatu ziren ere. Defendatzaileak Euskal Herriko mugimendu feminista eta ekologistako hainbat talderekin hitz egin zuten, lurraldeen arteko eta lurralde bereko desberdintasun harreman horiek nola egituratzen eta birsortzen diren ulertzeko, baina, era berean, tokiko eta mundu mailako agenda feminista bat egituratzeko sareak eraiki-

tzeko itxaropenarekin.

Prozesu osoan zehar, zaintza eta autozaintza kolektiboa lehenes-
tea izan zen erabilitako metodologiaren ezaugarri nagusia. Kon-
fiantzazko eta kalitatezko espazioak sortzearen aldeko apustua
egin zen, gorputzarekin eta gorputzetik lan egiteko, emozioak eta
sentimenduak ezagutzeko espazioa eskainiz. Atsedena, dan-
tzaren, irriaren, gozamenaren eta naturarekiko harremanen bidez,
gogoetarako, saneamendurako eta artikulazio feministarako gune
bat sortu ahal izan zen hainbat emakumeren artean.

LURRALDEAREN DEFENTSA ESKOLA IBILTARIA



1.1

BARNE INDARREKIN BAT EGITEN

Emakumeentzat, gure gorputz-lurraldearen zaintza eta defentsaren ikuspegiak dimentsio sentimental eta emozionala modu holistikoa ezagutzea eta lantzea eskatzen du, horrela gure desioekin bat egin eta defendatzeko. Tailerren prozesu honen helburua gure ahotsak zapaltzen dituzten faktoreak ikusaraztea da, horiek aztertzea eta begien aurrean jartzea, bai pertsonalki zein gure barnean, baita gizartean ere. Ahalduntze pertsonala sustatu nahi da, gure kolektiboen barruan eta kolektiboek gizartearekin duten elkarreraginean, alegia.

"Pertsonala dena politikoa da" lelo feministak esparru pertsonalean zeharkatzen gaituen oro, gure gorputzak zauritzen dituen, politikatik bertatik sortzen dela salatzen du. Horregatik, funtsezkoa da gure nahiak onartu, baliozkotu eta adieraztea, eta, haratago, desira horiek aldarrikapen politiko bilakatzea eta agenda feministan kokatzea.

"Barne indarrekin bat egiten" modulua Mujeres del Mundo Babel eta Mujeres en tejiendo Red taldeekin batera burutu zen. Lehenengo saioa Saioa Hernández Castrok gidatu zuen, psikologoa eta sexologoa, gorputzean eta desiran aditua; eta bigarrena Nathalie Bejaranok, psikoterapeuta eta sexologo ekuadortarrak dinamizatu zuen. Saio horietan erabilitako metodologiak parte-hartzaileen artean konfiantza giroa sortu zuen, eta gorputza, sentipenak eta emozioak ezagutu eta balioztatu zituen.

BARNE INDARREKIN BAT EGITEN

DINAMIZATZAILEA: SAIOA HERNÁNDEZ

Lotsa da gure ahotsen adierazpenean zuzenean eragiten duen sentimendu nagusienetako bat. Lotsa modu negatiboan epaitua izatearen sentsazioa da, barregarria egin izanaren sentsazioa, porrot egitearen sentimendua da... Zer dela eta sentitzen dugu emakumeok hainbeste lotsa gure adierazpen publikoetan? Gorputz lan baten bidez, Saioak gure gorputzak ezagutaraztera gonbidatzen du, gure gorputzaren atal bakoitzarekin, arnasketa-rekin, ahotsarekin eta bibrazioekin bat egitera. Meditazio horri esker, gure gorputzekin konektatu dezakegu, baia ez soilik forma arrazional batetik, baizik eta emozioak eta sentimenduak bezalako jakintza eta sentimendu iturrietatik abiatuta ere konektatzera gonbidatzen gaitu.

Bertaratutako emakume gehienek jendaurrean hitz egitean deseroso eta segurtasunik gabe sentitzen direla adierazi zuten. Berezik, garrantzitsua da emakume migratuen sentipena nabarmentzea. Izan ere, emakume horiek, hemen ez bezala, beren jatorrizko herrialdeetan seguruago sentitzen zirela beren burua adieraztean esan zuten, han ez zirelako etengabe zalantzan jartzen.

Genero rolek eragina dute jendaurrean adierazteko gaitasunean, *“emakumeok jendaurrean hitz egiten dugunean, ziurtasunik gabe edo arriskuan sentitzen gara, horren aurrean gaude”*. Celia Pérez-en ikerketaren arabera: *“Genero rolek oratorian duten eragina: antsietatea, parte hartzea eta generoarekin lotutako portaerak”*. Emakumeek urduritasun edo antsietate handiagoa pairatzen dute jendaurrean hitz egiteagatik.

Azkenik, parte hartzaileek ariketa bat egin zuten: mezu bat grabatu eta gero entzutea. Emaitzak harrituta utzi zituen, gehiengoak ez baitzuen onartzen eta ez zuen bere ahotsa ezagutzen. Deserosotasun sentimendua eta, kasu batzuetan, norberaren ahotsa mespretxatzearen inguruan hausnartu zuten. Izan ere, argi gertzen da ez dugula gure ahotsa baliozkotzen, eta, horrekin batera, gure adierazpenak ez ditugu baloratzen.

Emakumeek jendaurrean hitz egitean izan duten beldurra eta deserosotasuna, historikoki ez jardutearekin guztiz lotuta dago. Emakumeek ohitura gutxiago dute jendaurrean aritzeko (politikariak, hizlariak, etab.), baina baita espazio pribatuetan ere. Adibidez, familian, gizonak gai politikoei buruz zuten iritzia legitimatuta egon da; emakumeen kasuan, berriz, horrelako kontuak beren arduratik kanpotzat hartzen ziren. Honela esanda: *“aho itxian ez dira euliak sartzen”* edo *“isilik ederrago zaude”* adin eta kolore guztietako emakumeei zuzendutakoak, herri kultura patriarkala-



ren erakusgarri dira. Emakumeak isilarazten direnean, mezua argia da: gizarteak ez du emakumeen iritzia behar eta honek ez du balio, nahiz eta emakumeak gizarte horren funtsezko parte izan.

BIGARREN SAIOA

BARNE INDARREKIN BAT EGITEN

DINAMIZATZAILEA: NATHALIE BEJARANO

Migrazio prozesuek zaurgarritasun posizioetan uzten dituzte emakumeak: babesik gabe, arrazakerian menpean, prekarietatean eta indarkerian. Beren egoera pertsonalaren segurtasunik eza, behar bezalako laguntza sarrerik eza, lan neurrigabeak eta gaizki ordainduak, hizkuntza oztopoak edota indarkeria instituzionala beren autoestimua aurkako mehatxuak dira. Saio honen helburua elkarrekin babes tresnak partekatzeko lan egitea da (bai fisikoak, emozionalak zein mentalak), abusuen espiral horri aurre egiteko eta euren egoerak salatzen lagunduko duten estrategiak sortzeko. Horretarako, ezinbestekoa da gure ahotsei garrantzia ematea, afektu sareak eraiki eta indartzea, eta salaketa kolektiboak sustatzea, bidegabekeria islatzen duten egiturak eraldatzea helburu duen ekintza politiko gisa.

Saio honetan, Nathalie emakume migratuen errealitatea azpimarratzen du. Migrazio prozesua konplexua eta askotarikoa da. Gogoeta labur baten ondoren, migratzeak guretzat zer esan nahi duen hausnartzea proposatzen du. Hona hemen plazaratutako zenbait gogoeta:

- ✱ Askotan, migratzeak zaurgarri sentiarazten gaitu, bakardadea sentiarazten digu, eta gurea ez den beste testuinguru batean kokatzen gaitu.

- * Migratzeko arrazoiak askotarikoak dira, desiragatik edo behartutako migratzearen arteko aldeak migratzailearen ibilbidea zehazten du. Erbesteratzeak suposatzen duen mina are handiagoa da: *“Zure etxetik indarrez ateratzen zaituzte, eta maleta arineketan egin behar duzu, zurekin eramango dituzun oroitzapenak hautatzera behartuz. Oso gogorra da”*.
- * Ez hemen, ez han, *“bihotza banatuta”* sentitzea, gu hemen, harremanak ezartzeko ahaleginak eginez, eta, bestalde, gure jatorrizko tokietan, milaka kilometrora, ditugun harreman historikoak (familiakoak eta bestelakoak).
- * Pribilegioa, Iparraldea Hegoaldeko ustiapenaz baliatzen den ordena globalaren ondorio gisa, eta, beraz, iparraldeko emakumeek onura batzuk dituzte beste batzuen aldean. Esate baterako, Europako pasaportea eskuratzeko aukera, hainbat herrialderen aldeko mugimendu askatasuna eskaintzen duena, baita lan kontratua eskaintzen duen dokumentazioa eskuratzeko eta beste funtsezko eskubide batzuk onartzeko aukera ere, gero eta alde handiagoa dago eskuratu ezin dituenarekin.
- * Migratzea prozesu gogorra da, hemen dena da desberdina eta, sarritan, bereizkeriak eta indarkeriak markatutako ego-kitze prozesua egin behar dugu: *“Gutxietsiak gara, kosta egiten zaigu lana aurkitzea. Baina, aldi berean, ausartak ere bagara, eta hemen gaude, borrokan, aurrera egiten”*.
- * Arrazismoa. Zenbait emakumeek duten azalaren koloreagatik diskriminazio egoerak bizi izan dituztela adierazi zuten, eta hori delituzko jokabideekin lotu zuten: *“Diskriminazio bortitza pairatzen ditugu, arrazakeria egoerak. Ni morenita naiz,*

eta zuria gaizki begiratzzen nau, ziurrenik lapurtzera etorri zarelarela esaten dizute”.

Ezin da migrazioaz hitz egin arrazakeriaren fenomenoak aipatu gabe. Era berean, arrazismoaz aritzean, kolonizazioaren prozesu historikoa datorkigu ahora, hau izan baitzen arrazaren kategoriazarri zuena zuria kolorea haintzat hartuta, eta, horrekin, munduko ordena arrazista eraiki zuena. Bereizkeria eta indarkeria egoretan, zaintza funtsezkoa da: Nola zainduko dugu gure burua gure egoera aldatzeko borrokan ari garenean? CIESen itxieraren alde, erregularizazioaren alde, lan-baldintza duinen alde gauden bitartean.

Errealitate horren aurrean, egoera horiei aurre egiteko erabil ditzakegun tresna batzuk aipatzen ditu dinamizatzaileak:



- * Esparru emozionalari heltzea eta gogoeta egitea. Une hone-
tan, migrazio prozesuak mina eragitea oso normala litzateke,
eta hau onartzea eta plazaratzea oso ondo baliagarria da.
Prozesu horretan lagunduko duten terapia ezberdinak izatea
oso garrantzitsua da.
- * Hain barneratuta dagoen kolonizazioa zalantzan jartzea,
hura desmuntatzea eta norberaren esperientziatik datozen
jakintzak baloratzea.
- * Espazio jakin batzuetara nola joaten garen edo pertsona ja-
kin batzuekin nola erlazionatzen garen inguruan hausnartzea.
Hori zalantzan jarriz gero, hortik aldendu gaitezke, baldin eta
harreman edo espazio horiek ondo sentiarazten ez badigute,
edo esperientzia atseginak badira berriro ere errepikatzea.
- * Gure alde espirituala zaintzea, norberak sinesten duen eta
bizitzari zentzua ematen dion hura zaintzea, alegia.

1.2

ARTEA ERABILIZ (BER)ERAIKITZEN HASTEKO

Modulu honetan, hitza eta artea lurralde historikoaren defentsarekin lotzen dituen prestakuntza prozesua burutu zen. Talde feministen komunikazio tresnak indartzeko ezagutza praktikoak lortzea da helburua, eta, hala, haiek lurraldearen defentsan duten eragina hobetzen laguntzea. Arteako "Basoa" Defendatzaileen Etxean egin zen jardunaldia, Arratiako haranean, eta Femgarabat kolektiboko Bea Apariciok eta Janire Ordunak dinamizatu zuten. Biak arte feministan adituak dira, eta lurraldearen defentsa feministarekin lotutako lan ibilbide luzea dute.

Hasieran, esperientzia artistikoak eta komunikazio feministakoak ezagutarazi ziren, eta, ondoren, kolektiboen barne zenbait jokae-



ra identifikatzeko lana egin zen, haien komunikazio gaitasunak indartzeko. Azkenik, praktika artistikoarekin esperimentuak egin ziren sarea sortzeko, loturak sendotzeko eta kideak eta, beraz, taldeak ahaldundzeko. Proposamen honen atalik interesgarriena da bai prozesuak zein azken emaitzak laguntza eskaintzen dutela komunikazio feministan ideia berritzaileak sustatzeko, eragin politikorako estrategiaren parte gisa.

Tailerra hiru fasetan egin zen:

1. Komunikazioaren historia feminista: geografia eta garai ezberdinetako kartelen bidez, hainbat testuingurutan erabilitako komunikazio tresnak erakutsi aztertu ziren. Fase honetan, komunikazio feminista eta alternatiboari buruzko berrikuspen teorikoa egin zen. Ikusizko elementu desberdinen bidez, historikoki artea eta feminismoa nola lotu diren formen gaineko gogoeta sakon bat burutu ahal izan zen. Grafika motak, ko-



loreen erabilera, irudikapen sozialak, igorritako mezuak eta testuinguru historiko desberdinak aztertu ziren.

- 2.** Fanzine kolektiboa sortzea: fanzinea argitalpen erraz bat da, eta aztertutako kontzeptuak praktikan jartzeko aukera eskaintzen du. Lehenengo pausoa mezu komun bat sortzea eta hau grafikoki irudikatzea da. Fanzinearen mezua gorputzaren eta naturaren arteko loturari eta komunitatearen konpromisoari buruzkoa izan zen.
- 3.** Esku hartze artistikoko praktika eta horma-irudi bat egiteko tresnak zehaztea: aldarrikapen mezua duen horma-irudi edo pankarta kolektibo bat sortu zen. Horretarako, lehenengo pausoa mezua eraikitzekeo ideiak taldean adostea izan zen. Lankide bakoitzak borroka eta militantzia esperientziatik parte hartu zuen, horma-irudian agertu beharko liratekeen elementuak adierazteko: gaitasun desberdinak dituzten emakumeen irudiak, etxeko eta zaintzako langileak, natura, ekologismoa, Ondo Bizitzea, aliantza feministak eta LGTBQ+ kolektiboaren eskubideak. Aho batez aukeratutako gaia Zainketak izan zen, eta salaketa eta aldarrikapen gisa, *“Adi! Zainketen iraultza hemen da!”* leloa adostu zen.

Tailer honek erronka handia suposatu zuen, beldurrak eta segurtasun ezak gainditzea suposatu zuen. Izan ere, elkar ezagutzen ez diren 15 emakumek denbora tarte oso txiki batean mezu bat sortu eta irudikatu behar duten, *“nik gogoratzen dut, bi ordu lanean, bakoitza margozten, baina elkarri entzunez eta elkar ezagutuz, haiek sukaldean ezagutzen dutenaren antzeko zerbait intimoa, oso egunerokoa da”*. Talde sorkuntza ez da lan batere erraza, interakzioa sortu eta adostasuna lortu behar da, gero marrazki baten bidez transmititzeko, eta, nahiz eta marrazketa hizkuntza

primitiboena izan, prozesua ez da erraza.

1.3

GURE ARTEAN (BER)EZAGUTZEN

Atal honetan, emakumeen parte hartzeari eta kolektibo feministen arteko harremanen inguruko hausnarketa egingo da. Migratutako eta tokian tokiko defendatzaile eta aktibista feministek identifikatu eta adierazi dute zainketa eta afektu sareak feminismoen arteko ezinbesteko aliantza gisa ulertzeko beharra. Hausnarketarako funtsezko kontzeptu batzuk hauek dira: aniztasuna, horizontaltasuna, pribilegioak, feminismoak, espazio seguruak.

Bi saio horien helburua askotariko kolektibo feminista ikusaraztea eta aintzat hartzea izango da, bai eta parte hartze zuzena, errespetuzkoa eta horizontala lortzea ere, ezinbesteko elementuak baitira parte hartzaileak maila pertsonalean eta kolektiboan emozioz indartzeko. Azterketa pertsonala egiteko ekintzak sustatu nahi dira, hemengo emakumeak eta euren pribilegioak kolokan jar daitezke 1) *Nola erlazionatzen naiz beste kolektibo batzuekin? Emakume migratuekin, emakume ez bitarrekin, etab.* 2) *Nola lortu beste jatorri eta sexualitate ezberdinetako emakumeak parte har dezaten? Sortzen diren harremanak aztertu eta horietaz jabetzea da kontua, bidezkoak dira ala ez?* Helburua espazio feminista bat sortzea da, emakume migratuek eta pertsona ez bitarrek beren bizitzako istorioak ezagutu eta beren sentipenak adierazteko, beren bizitza esperientzia balioan jartzeko eta aliantza eta sare desberdinak modu horizontalean ehuntzeko.

Modulu honen dinamizatzailerak arrazializatutako bi emakume dira, eta ibilbide luzea egin dutenak emakume migratuen laguntza prozesuetan, teoria dekolonistan eta antiarrazistan adituak dira aldi berean. Rebeca Nguissani euskal aktibista da eta bere burua “euskaldun beltz” gisa identifikatzen eta aldarrikatzen du.

Kazetaria eta Mugimendu Panafrikarreko militante feminista da, bai eta Raizes kolektibo dekolonial eta ez bitarreko militantea ere. Cony Carranza Castro salvadortarra da, herri hezitzaile feminista, *Mujeres del Mundo Babel* kolektiboko kidea, Euskal Herrian emakume migratuen alde eta haientzat lanean 15 urte baino gehiagoko lan ibilbidea duena.

LEHENENGO SAIOA

AFEKTU SAREAK ETA ZAINTZAK

DINAMIZATZAILEA: CONY CARRANZA CASTRO

Sistemaren eta haren opresioen aurkako erresistentzia ekin-tza handienetako bat bizitza eta natura zaintzea da. Erdialdeko Amerikako defendatzaileek gogoeta etiko eta politikoa egitea proposatzen dute, zaintza mugimendu feministen apustu nagusi bilakatzeko. Horretarako, ezinbestekoa da nork bere burua zain-tzeko sareak sortzea. Horrek denbora eskatzen du, zaugarritasuna onartzea, feminismo desberdinen arteko desberdintasunak, interdependentziak eta pribilegioak ikusaraztea: Iparra eta He-goia, tokikoa eta migratua. Saio honen helburua afektuzko sareak ezagutu, hausnartu eta ehuntzea da, emakume ezberdinen arteko bizitzari eusteko. Tailer horien metodologia herri hezkuntzako metodologietan oinarritzen da, eta gorputza bera hausnarketaren eta lanaren ardatz bihurtzen dute.

Gatazkak gizarte harremanei dagozkie, beharrezkoa da haien exis-tentzia ezagutzea eta haiek komunikatzen eta konpontzen ikaste-ko estrategiak garatzea. Harreman horizontalak sortzeko, beha-rrezkoa da konfiantza sortzea, lotura afektiboa hobetzea elkarren arteko harremana sustatuz, sentimenduak eta emozioak adierazi eta ezagutzeko konfiantza dagoen espazioetan. Ezinbestekoa da

errespetuzko ereduak sortzen lan egitea, eta tratu ona lehenes-
tea, gure sentimenduak kudeatzen eta komunikatzen ikasteko.

Tailer honetan bertako emakumeekin migrazio prozesua landu
zen. Emakume migratuen errealitateari buruzko informazioa oso
partziala da: zurrumurruak, estereotipoak eta aurreiritziak egune-
roko logiketan erabiltzen baitira. Ez dira ezagutzen Atzerriartasun
Legearen ondorioak, zer esan nahi duen eta zenbat traba dituzten
bizileku eta lan txartel bat eskuratzek. Esate baterako, gutxienez
urtebeteko lan kontratua izatea, bi urtetik hiru urtera errolatuta
egotea eta, bitartean, "b"-n bizitza bilatzeak, hau da, ezkutuko
ekonomian lan egiteak. Lan-kontraturik gabe oso zaila da etxebi-
zitza bat eskuratzea, errolatze errentaren merkatu paralelo bat
dago, bukatzen ez den soka bat da.

Arrazismoak eta kolonialtasunak errealitate hori goitik behera
zeharkatzen dute. Emakumeak pertsona arrazistatzat hartzen ez



badira ere, garrantzitsua da definizioaz eta horrek suposatzen duenaz jabetzea. Arrazismoak munduaren ikuskera bat markatzen du, talde etniko batek besteen aurrean duen nagusitasunaren alde egiten duen ideologia bat da, eta esplotazio ekonomikoa, gizarte bereizketa edota horien esplotazio fisikoa justifikatzen ditu: arrazakeriak pertsonak beren itxura fisikoagatik edo jatorri etnikoagatik bakarrik diskriminatzea eragiten du.

Bestalde, kolonialismoa ez da herrien eta kulturen okupazio eta utsiapenaren une historikoa soilik; kolonialismoa une historiko horretatik sortzen den botere eredu bati dagokio, eta gaur egun lana, ezagutza, autoritatea eta subjektuen arteko harremanak elkarren artean artikulatzeko moduan oraindik ere jarraitzen duena. Amerika eratu zen une berean sortu eta inposatzen den arraza/etnia sailkapen bat ezartzean oinarritzen da, eta, momentu historiko berean, botere kapitalista mundu osora hedatzen da.



Dinamizatzaileak azal beltza eta ezaugarri indigenak izateak zer esan nahi duenaren inguruan hausnartu zuen, eta hori jatorrizko herrialdean arrazismo jakin baten esperientziarekin lotu zuen. Forma horiek, Europara iristean nola aldatzen diren azaldu ahal izan zuen, Atzerriarren Legearekin topo egitearekin eta arrazismoaren beste adierazpen batzuekin batera.

Taldeko eztabaidak argi utzi zuen migrazioaren gaineko begirada gai ekonomikora soilik bideratzen dela, hau da, fenomeno horrengatik edo genero indarkeriagatik bakarrik azaltzen dela. Ezin bestekoa da Iparra eta Hegoaren erlazio asimetrikoa argitzea. Hegoaldeak Ipar Globala sostengatzen du, ez bakarrik aberastasun naturalak kontsumitzeagatik, baita iristen diren emakumeen gorputzen bidez ere, eta etxeko lanen gizarte eskaria eta pertsona helduen eta haurren zainketa beharrak asetzen ditu erabat.

Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko harreman historikoa erruduntasunetik soilik aztertzea liskarrak sor ditzake, emakume bakoitzaren historiak (bai hemen, bai han) menderatze eta esplotazio harremanak ezkutatzen baititu. Emakumeak zapalduak izan gara historikoki lurralde guztietan, beraz, garrantzitsua da onartzea bai, baina baita kokatzea ere. Lurralde bakoitzean opresioak eta pribilegioak eraikitzen dira. Horrengatik, garrantzitsua da emakume zuriak zurasun horren pribilegioei buruzko gogoeta eta aintzatespen ariketa bat egitea. Horrela bakarrik har daitezke erantzukizunak eta ahizpatasun harremanak sortu Besteekiko.

Parte hartzaileek egoera hori gaitzestearekin ez daudela batere ados azaldu zuten, tratu onaren alde egiten dutela. Horrengatik, dinamizatzailerak errespetuaren garrantzia eta eremu mistoetan elkarbizitzarako akordio argiak ezartzearen garrantzia aldarrikatu zuen, emakume bakoitzaren esperientzia eta pribilegioak aitortu eta lantzeko beharra baliozkotzen dituen metodologia bat gara-

tzea, emakume desberdinen arteko harreman horizontalak eraikitze-ko etengabeko apustuan.

Solasaldiaren ondoren, zenbait erronka ezartzen dira sare mistoak sortzeko: nola egin uko asistentzialismoari?, zer posiziotik ematen dugu laguntza?, nola egin aurre deserosotasunari?, nola berrikusi nire pribilegioak?, zer egiten dezakegu horiekin?, aldaketak sortzeko eta onartzeko prest nago? modu pertsonal eta kolektiboan, zertara konprometitzen naiz? Parte hartzaileek berrikusteko eta auzitan jartzeko prest daudela adierazi zuten, baina ez dute errua edota amorrua bitartekari diren egoerekin topo egin nahi. Horregatik, beharrezkoa da desberdinen artean entzuteko eta errespetatzeko espazioak sortzen jarraitzea, emakume migratuek beren espazioetan sortutako gogoetak beste espazio batzuetan konpartitu ahal izateko. Horrela, elkarrizketa bat birstutu ahal izango da, enpatia eta zurruntasunetik abiatuta.

BIGARREN SAIOA

ARRAZAKERIA ETA ASKOTARIKO IDENTITATEAK

DINAMIZATZAILEA: REBECA NGUISSANI

Estereotipoek imajinario kolektiboak eraikitzen dituzte, desberdinekiko aurreiritziak eta indarkeriak bideratzen dituztenak, hau da, oinarri kontzeptual unibertsalista eta eurozentriko batetik eratorritako problema bat. Pentsatzeko, sentitzeko eta jarduteko modu hori zalantzan jartzea ezinbestekoa da gure praktika feministak kolokan jarri eta birpentsatzeko, kultura arteko eta arrazismoaren aurkako ikuspegitik. Nola aldatu ditzazkegu gure kolektiboak nortasun desberdinetako emakumeak (LGTBIQ+, arrazializatuak, etab.) modu horizontalean parte hartzeko espazio seguruak bila-

katzeko? Horixe da, hain zuzen, saio honen helburua.

Rebeca emakume beltza eta euskalduna da, etorkinen alaba. Bere jatorriari buruz galdetu du, eta taldeko gehienek Afrikarekin lotzen dute bere jaioterria. Zentzu komunetik, beltza Afrikarekin lotzen da orokorrean, eta emakume beltza estereotipoz beteta dago: *“pateretan etortzen direnak dira”, “erritmoa dute eta dantzatzen dakite”*. Rebecaren ustez, euskal gizarteak bigarren belaunaldiaren esanahia ezagutzea oso garrantzitsua da, *“nire historia ez dagoelako migrazioarekin lotuta, ez naudelako definitzen, ez dagokit, nire gurasoak izan ziren migratu zutenak, haien historia da, ez nirea”*.

Googlen “euskal gizartea” bilatzen dugunean, irudiek ez dute la aniztasuna islatzen antzematen dugu, kolektibo homogeneous agertzen zaigu begien parean. Baina ez da egunerokoan, autobusean edota lanean ikusten dugun kultura anitzeko irudia. Euskal gizartea osatzen duen aniztasunaren adierazpiderik ez egoteak bereizkeria, desberdintasuna, lotura eta identitate ezak eragiten



ditu. Bestalde, "immigrazio" hitzaren bila ari garenean, eta paterak eta jende ez-zuria agertzen dira.

Rebecak esan du bera nortasun linbo batean dagoela, familiarren barruan Afrikako kultura, ohiturak, janaria eta hizkuntza bizi dituela. Bien bitartean, bizitza publikoan ordea, euskaldun gisa identifikatzen da, baina ezin du bere buru Afrikan kokatu, ezta Euskadin ere. Dinamizatzaileak bere esperientzia partekatzen du parte hartzaileekin: *"Ni, nire sustraiekiko eta lotu nauen lurraldearekiko lotsagabekeria bizi dut. Gainera, nire nortasunari buruzko eztabaida etengabea bizi dut. Euskaraz hitz egiten entzuten didatenean harritu egiten dira, eta nik esaten dut... baina beno, txikitatik joan naiz ikastolara! beste toki batean kokatzen naute. Inorena ez izatearen sentsazioa da, eta horrek mina ematen du, jabetza eta nortasuna oinarritzko giza beharra dugulako, eskubidea delako. Nire bertoko harremanek ez naute berdin ikusten eta, horrek arazo bat sortzen dit".*

Jendeak emakume beltz gisa irakurtzen nau, baina beste errealitate batzuk ere zeharkatzen naute, gizarte klasea, esaterako. Guztiz beharrezkoa da planteamendu kritiko bat garatzea, men-debaldeko feminismo eurozentrikoak, zuria eta klase ertainekoek emakumeen berdintasuna eta hauen emantzipazioa edota sexualitate eta genero ez bitarrak nola planteatu dituzten aztertzeko. Minaren eta maitasunaren bidez interpelatzea eta taldean osatzea. Feminismo dekolonialek opresioen eta sexu, genero, klase eta etnien arteko gatazken elkargunea jartzen dute ardatz gisa, eta kolonialismoak eta neokolonialismoak ezarritako erakunde eta kultura kategoriekin lotzen dituzte, besteak beste, feminismo berarekin.

Azkenik, ariketa bat planteatu zen identitate auziari buruz sen-

tsibilizatzeko. Esperientzia gogorra izan zen, eta, horri esker, kokolan jarri ahal izan zituzten parte hartzaileak euren buruak. Taldearen hausnarketa bat dator esperientzia oldarkorra izan zela adieraztean, bortitza, eta nolabait behatuta sentitu ziren, etengabe zalantzan jarriz euren buruak eta identitateak. Ariketa honek kontzientzia kritikoa ahalbidetzen du, egia absolutua zalantzan jartzeko eta barneratutako ezagutzen inguruan gehiago hausnartzeko. Gizartearen alboetan kokatzea zer den sentitzea ere posible izan zen, estereotipoen menpeko zapalkuntza bizitzea.

Ezinbestekoa da ulertzea aurreiritziak eta estereotipoak pertsonak sailkatzen dituen arrazionaltasunetik sortzen direla, gaur egun ere azalaren koloreagatik edota jatorriagatik. Zuritasun hegemonikoa betetzen ez duen oro beste zeozer bat baldin bezala antzematen da, eta, beraz, marjinazioan, bazterketan eta zapalketan kokatzen da. Alde horretatik, feminismo zuriak feminismoaren parte diren subjektu politikoaren esperientziak homogeneizatzen ditu, esperientzia jakin batean oinarrituta, eta esperientzia hori unibertsal bihurtzen dute. Ikuspegi horrek ikusezin bilakatzen ditu beste talde batzuen esperientziak, eta ez ditu feminismoaren parte gisa baloratzen. Beraz, gorputz feminizatuen barruko hierarkiak eta pribilegioak islatzen ditu.

Feminismo zuriari egindako kritika funtsezkoa da gizakien eta gizatasuna ez den guztiaren dikotomia modernoa hausteko, ahots batzuk besteen gainetik lehenesten baititu. Guztiz beharrezkoa da atalen arteko azterketa bat egitea, generoaz haraindiko beste zapalkuntza sistema batzuk ikusteko eta beste talde batzuek zeharkatzen duten egiturazko indarkeria ulertzeko: LGTBI+, pertsona lodiak, arrazializatuak, migratzaile, pobretuak, gaitasun desberdinak, besteak beste. Mugimendu feminista zabal eta askotarikoa sortzeko, non ahots guztiek lekua izango duten, mugimendua heterogeneotzat hartu behar da.

ERDIALDEKO AMERIKAKO DEFENDATZAILEEKIN SOLASALDIAN



2

ERDIALDEKO AMERIKAKO DEFENDATZAILEEKIN SOLASALDIAN

Gorputzak eta lurraldearen defendatzea behar orokorra da, pertsonen eskubideak urratzea, natura ustiatzea eta etengabe arakatzeari kaltegarria da gizateriarentzat eta bizitza osoarentzat. Hori dela eta, Euskal Herriko talde feministen eta Erdialdeko Amerikako lurraldeetako aktibistak eta defendatzaileen arteko topaketa eta elkarriketa funtsezkoak dira, lurralde horietan emakume izatearen inguruko hausnarketak burutzeko, emakume defendatzaileen esperientziak ezagutzeko eta hainbat lurraldetatik elkarrekin borroka egiteko moduak identifikatzeko.

Bi topaketa egin ziren, bat Bilbon *Mujeres del Mundo Babel* eta *Mujeres Tejiendo Red* elkarten parte hartzearekin. Bestea, Santurtzin burutu zen eta Alma & Lutsia elkarte eta Marimatraka Talde Feminista izan ziren bertan. Ondoren, solasaldietan parte hartu zuten giza eskubideen aldeko aktibisten deskribapena dugu:

Angie Ross, jatorriz Guatemalakoa, komunikazio zientzietako ikaslea da. Kazetari gisa, *Ruda, mujeres y territorio* hedabide independentean lan egiten du, ikuspegi feminista komunitarioak eta erresilienteak dituzten emakumeek sortutako prentsa komunitario digital proiektua da.

Andrea Rosales Hondurasen jaio zen, nazioarteko harremanetan lizentziaduna da eta sexu eta ugalketa eskubideen aldeko aktibista da *Somos Muchas, Por la libertad y la vida de las mujeres* pl-

taforman. Kolektiboak Hondurasen sexu eta ugalketa eskubideak bermatzeko eta errespetatzeko lan egiten du.

Michelle Carbajal hondurastarra da, sexu eta ugalketa eskubideen alde eta abortu legal, libre eta seguruaren aldeko aktibista. Hondurasen abortoa despenalizatzearen aldeko Somos Muchas plataformaren eta *Yo no quiero ser violada* mugimenduaren kide da. Gaur egun, Euskal Herrian bizi da.

Sara Álvarez guatemalarra da, eta 20 urte baino gehiago daromatza lanean emakumeen, herri indigenen, gizarte erakundeen eta haien eskubideen eta autonomien alde. Bere esperientziatik abiatuta, maia herri indigena batetik etorria eta lesbiana izanda, eraikitzearen alde borroka egiten du.

Defendatzaileek beren erakundeetan egiten duten lan esperien-



tziatik abiatuta azaldu zuten beren borroka. Angie Rossek, bere kazetaritza lanean, lan egiten duen medio alternatiboan jarri zuen arreta. Ikerketa eta argitaratze horrek agerian uzten ditu eskubideen defendatzaileak, baina baita indarkeria jasaten duten emakumeak eta emakumeen eta erakundeen arteko sareak sortzearen garrantzia ere.

Guatemalan, 2022. urtean, Ministerio Publikoak indarkeria fisiko, psikologiko eta ekonomikoagatik 49,215 emakumeren salaketak erregistratu ditu. Gainera, Emakumearen Behatokiak 469 emakume hilketa erregistratu ditu; eta horietatik 55 bakarrik kondenatu dituzte. Azken horrek erakusten du genero indarkeriaren biktima diren emakumeen justiziarako sarbidea urria dela.

Nesken kasuan, Estatuak ez ditu herritartzat hartzen adingabeak direlako, baina onartzen die emakume helduen prozesuak bere gain hartzea ordea, hala nola, haurdunaldia eta erditzea, nahiz



Foto: Marina Gallardo

eta egoera biologiko, psikologiko eta askotan sexu indarkeriaren emaitza izan. Ministerio Publikoaren arabera (MP), aurtan 4.948 zalaketa onartu dira neskatoen eta emakumeen aurkako sexu bortxaketagatik.

Sexu indarkeriaren biktima izan ondoren, haurdun dauden neskek emakume helduen rolak hartu behar dituzte. Alde batetik, osasunerako, bizitzarako, hezkuntzarako, indarkeriarik gabeko bizitzarako, integritaterako eta garapen pertsonalaren autonomiarako eskubidea uzten dute. Erabat ukatu zaie beren bizitzei buruzko erabakiak hartzeko aukera, eta haien etorkizuna erabat kolokan geratzen da.

Nesken haurdunaldien testuingurua aldatu egiten da eskualdearen arabera. Esate baterako, Huehuetenango, 10 eta 19 urte bitarteko nesken kasuan, 5,221 haurdunaldi ematen dira; haurdunaldi eta jaiotze horiek "normalizatu" egin dira, neskek familia goiz dutela uste baita. Gizarte praktika horri esker, familiak edo gurasoek animaliak edo dirua onartzen dituzte beren alabak batzearen truke. Izan ere, Guatemalan ezkontzeko adin legala 18 urterekin ezartzen da, baina 8-2015 Dekretuak 82. artikulua aldatu zuen, adin salbuespena jorratzen duena haun zuzen. Kasu berezietan, 16 urtetik gorakoa da neskatoetan ezkontzeko gutxieneko adina, baina lehen 14 urtekoa zen. Argi dago kasu askotan indarkeria dakarren praktika hori eta ugalketarekin lotutakoak pobrezia testuinguruekin erabat lotuta dagoela.

Lege mailan, ez dago erasotzaileak prozesu legal baten mende jartzen dituen behar bezalako justizia sistemarik. "Vida" izeneko programa bat dago, 14 urtetik beherako haur eta haurdun dauden nerabe edo amentzat sortua. Programa horrek kasuak sexu indarkeriaren biktimatzat hartu ditu justizia sistemak. Hala ere,

programa hau eskasa da, sexu erasoa jasan zuten nesken %10ari soilik eskaini ahal die laguntza, eta hiriburuan bakarrik dago gainera. Programa honek neskei laguntza eskaintzen die bizitza plan bat bideratzeko, baina haurra jaio ondoren, ez da inolako erakunderik arduratzen bere bizitza planaz.

Aldi berean, gorputzen autodeterminazio librea kriminalizatu egiten da. 2022ko martxoan lege bat onartu zen (geroago artxibatu egin zena), eta sexu bereko pertsonen arteko ezkontza debekatzeko eta abortatu duten neskentzako eta emakumeentzako espetxe zigorrak areagotu zituen. Gainera, gorputz disidenteek aurkako indarkeria areagotu egiten ari da. 2021. urtean, LGBTIQ+ Eskubideen Behatoki Nazionalaren datuen arabera, 32 pertsona hil ziren sexu joeraren edo genero identitatearen ondorioz. Guatemalako gorputz feminizatuen aldeko borroka premiazkoa da; kazetaritza feminista funtsezko elementua da kontakizun androzentrikoari aurre egingo dion ikuspegi bat lantzeko eta informazioa emateko.

Andrea Rosalesek, Erdialdeko Amerikan (Hondurasen batez ere kasu honetan) abortatzeko eskubidea erabili nahi duten emakumeen egoera ikusarazteko bere kolektiboak egiten duen lanean jarri zuen arreta. Somos Muchas plataforma erakunde, kolektibo, sare eta feminista independente ezberdinez osatutako plataforma bat da, abortua despenalizatzeko lan egiten duena, eta horregatik, aktibista eta defendatzaile asko kriminalizatuak izan dira. Hori dela eta, aktibista askok erbesteratu behar izan dira beren bizitza babesteko.

Honduraseko Osasun Idazkariaren arabera, egunero 14 urtetik beherako 3 neska erditzen ari dira. Honduras Latinoamerikan nerabeen erditze tasarik handiena duen bigarren herrialdea da.

Bestalde, abortua erabat zigortu izanak ez du galarazten hura egitea, ezkutuan bada ere. Datu estraofizialen arabera, Erdialdeko Amerikako herrialde honetan 51.000 eta 80.000 abortu egiten dira urtean, eta horietako asko arrisku egoeran egiten dira. Nahiz eta estatistikak altuagoak izan daitezkeen, *"Klandestino hitz horrek ez du beti segurtasunik eza adierazi nahi, baina informazioa eskuratzeko aukerarik ez duten emakumeentzat edota 'negozio' hori gehien ematen den hirietakoak ez diren askorentzat, horrela abortatzeak arrisku bat suposatzen du eta ez da batere duina"*.

Herrialde honetan, abortua klase pribilegioa da. Somos Muchas plataformatik itzalpeko txosten bat argitaratu genuen 2019-2020an, abortuaren kriminalizazioaren gaiarekin lotuta. Kasu gehienetan, emakume pobreei kriminalizatzen zaie. Landa eremuko emakumeak dira asko, etxeko lanak egiten dituzten emakumeak edo bigarren hezkuntzako ikasleak dira, behar duten laguntza psikologikoa eta legala eman dakiekeen espazioetarako



Foto: Marina Gallardo

sarbiderik ez duten emakumeak.

Bestalde, Hondurasen zigorgabetasun maila izugarria da sexu bortxaketen, sexu erasoen eta giza eskubideen defendatzaileek pairatzen duten kriminalizazioaren kasuetan. Nahiko ironikoa da, *"nire herrialdean justiziak ez du funtzionatzen, baina, erabakitzeke eskubidea erabiltzea aukeratzen duten emakume horiek kriminalizatzeko orduan, hor bai, hor badago, horra heltzen da justizia"*.

Emakumearen aurkako Bereizkeria Mota guztiak Erauzteko Konbentzioaren Batzordeak (CEDAW) dioenez, abortua eta bortxazko haurdunaldiak erabat debekatzea tratu txar, indarkeria eta iraingarrien forma da. Abortua hiru kausaletan despenalizatzea lortu da Somos Muchas mugimendua osatzen duten erakundeek aurkeztutako konstituziokontraotasun errekurtsuaren ondorioz: emakume edo haur haurdunaren bizitza edo osasuna arriskuan dagoenean; fetua umetokitik kanpo bizitzea bideraezina egiten



Foto: Marina Gallardo

duen bateraezintasuna dagoenean, eta haurdunaldia sexu bor-
txaketaren ondorioz gertatzen denean. Giza eskubideen babe-
saren arloan herrialdeak hartutako konpromisoekin bat datorren
neurria da, abortatzeko eskubidea emakumeen giza eskubideen
onarpenera da.

Bere esperientziatik, Michelle Carbajalek gorputzaren defentsaz
hitz egiten du, gorputza bera lehen lurralde gisa jarritz. Haren
kontakizunak agerian uzten du indarkeriek lotura dutela emaku-
meekin, lurraldeen lapurretarekin eta Estatuak eta Elizak haien
gorputzak kontrolatzearekin. *“Enpresek eskulan merkea behar
dute. Hondurasen abortua zigortuta dago, seme-alabak hazten
dituzten emakumeak nahi dituztelako, gure gorputzak nahi dituz-
telako beren onerako”*.

Euskal Herrian migratutako emakume baten alaba da Michelle.
Amaren eta beste lagun batzuen bidez, emakume migratuen
egoeraren berri izan du, eta orain aurre egin behar dio. Lurralde
horretan hainbat diskriminazio bizi direla aitortzen du, bizitzaren
alderdi guztiei eragiten dietenak: lanerako sarbidea, hezkuntza
esparrua, eremu politiko, sozial eta kulturalak. Gaur egun, kolonia
terminoa erabiltzea edo kolonialismoaz hitz egitea herri batzuek
besteengan duten nagusitasuna aitortzea da, tokiko biztanleria-
rengandik migratzaile edota arrazializatuarengana.

Pentsamendua deskolonizatzeko historia ofiziala zalantzan jartzea
esan nahi du, mendebaldeko arrazoiak haratago beste ezagu-
tza modu batzuk daudela onartzea, deskolonizatzeko eragitea,
erlazionatzeko ugun moduaren inguruan hausnartzea, eredu eu-
rozentrikoarekin kontrastatuko duen elkarrizketa horizontala sor-
tzeko.

Sara Álvarezek sendatzeko esperientzia partekatu zuen. Haren aburuz, militantzia tradizionalak estresa eta nekea eragiten du, eta horrek eragina du aktibisten eta defendatzaileen bizitzan. Hortik dator sendatzearen garrantzia, bai maila pertsonalean bai kolektiboan.

Gure arbasoen mundu ikuskerek oreka energetikoa, fisikoa, mentala eta emozionala dute osasun iturri gisa, oinarritzko bost elementuen bidez: ura, sua, lurra, haizea eta energia, eta osotasunarekin erabat lotuta daude. Gida espiritual, emagin edo sendatzaileen irudiak "osasun agente" gisa jarduten du, esparru fisikoa zainduz, baina baita gure alde espirituala eta emozionala ere. Sendatze prozesurako, agente horiek eta belaunaldiz belaunaldi transmititu diren ezagutzak ezinbestekoak dira. Hala ere, kolonialismoak mendebaldeko mundu ikuskera moderno inposatu du, eta osasuna merkantilizatzeak (sistema kapitalista neoliberalarena) azken hamarkadetan milaka urteko tradizio hori murriztu izana suposatu du.

Aldi berean, zientzialari gisa baliozkotu ez diren ezagutza horiei buruzko estigmatizazio sistematikoa "sorginkeria" gisa etiketatu da. Jakintza horien estigmatizazioak horiek degradatu eta ezabatze asmoa du, bizitza merkantilizatzearen aurka daudelako. Zentzu horretan, esan daiteke ezagutza alternatibo horiekiko arrazakeria dagoela. Alde horretatik, komunitate maiek erresistentzia irudikatzen dute, praktika horiek herri maien egunerokotasunaren parte direlako. Sendatzaile eta emaginek hainbat ezagutza dituzte landare mota askoren sendatzeko ahalmenari buruz, eta badakite non aurkitu landare horiek, hainbat gaixotasuni aurre egiteko.

Garrantzitsua da memoria hori berreskuratu, berreraiki, birba-

loratu eta aldarrikatzea, emakumeekin eta emakumeengandik, munduarekin modu harmonikoagoan erlazionatzeko. Maien jakinduriak izaki bizidun guztiak kosmosaren parte garela adierazten du, inor ez dagoela kanpoan, izaki guztiok badugula toki bat, eta ez dela beste bat baino garrantzitsuagoa, ez dagoela hierarkiarik. Bizi energia toki oron dago eta, beraz, ohoratu, errespetatu eta duindu egin behar da. Jakintza horrek oreka berreskuratzeko aukeraz ere hitz egiten du, bizitzaren ziklikotasunaz, dena nola aldatzen eta eraldatzen den, eta horrek kontraesanean jartzen du mendebaldeko mundu ikuskerak planteatutako egitura eta eske-ma zurrunen ideia. Laburbilduz, antzinako jakintza horiek bizitzari eusteko baloreak dira, eta horretan bat dator bizitza eta haren zaintza gizarte antolaketaren ardatz gisa jartzeko garapen feministarekin.

ERRETIRO FEMINISTA

AUTOZAINTZARAKO ESPAZIO KOLEKTIBO
BATEN ALDEKO APUSTUA



3

ERRETIRO FEMINISTA. AUTOZAINZARAKO ESPAZIO KOLEKTIBO BATEN ALDEKO APUSTUA

Erretiro jardunaldi feministak hainbat helburu izan zituen: auto-zaintzarako espazio bat sortzea, Eskola Ibiltari Feministan burutu ziren tailerren bidez ezarritako harremanei jarraipena ematea, baina parte hartu zuten kolektiboek hausnartu eta berriro ere itzultzeko gune bat irekitzea. Eta, bestetik, tokiko eta munduko agenda kolektiboa partekatu eta koordinatzea prozesuan parte hartzen duten bertoko erakunde feministen eta ekologisten artean, baita giza eskubideen eta lurraldearen defendatzaileekin batera ere.

Arratian dagoen “Basoa” izeneko defendatzaileen etxean egin zen topaketa, eta bi egun iraun zuen. Espazio natural batean, denboraren presiorik gabeko jarduerak eta ekintzak egin ziren. Hori dela eta, kalitatezko espazio bat sortu ahal izan zen topaketarako, ezinbesteko elementua baita emakumeen arteko elkartasun sareak osatzeko. Gune ludiko hori dinamizatzaileek berek antolatutako eta gidatutako gune kolektibo bat da.

3.1

AUTOZAINITZA, ZAINITZAK ETA SENDATZEA

SARA ÁLVAREZ-EN ESKUTIK

Gaur egungo gizartean, azkartasunak eta berehalakotasunak zama berezia dute emakumeengan, gure gizarte rola zainketa, hazkuntza, etxearen kudeaketa, garapen profesionala, dirua irabaztea eta abar eskatzen baitigu. Nekea, norberaren exigentzia eta gu geu zaintzeko denborarik ez izatea zama bat da; horregatik, ezinbestekoa da geure burua zaintzeko estrategiak sortzea eta garatzea.

Espazio honetan, biribilean jarriko gara, jarrera erlaxatuan, hurrengo galderaren inguruan hausnartuko: Zer egiten dut nik nire egunerokotasunean nire burua zaintzeko? Taldekideek honako hauek partekatu zituzten:

- * Ondo jatea. Kontsumitzen dudak elikagaiaz, nondik datoren eta norekin partekatzen dudak jabetzea. Ordu-tegiak ezartzea, jateko denboraz gozatzea.
- * Zauriak barkatzen eta sendatzen jakiteak zure burua zaintzen laguntzen dizu. Arima askatzen dizu, aurpegia aldatzen dizu.
- * Kideekin eta lagunekin bizikidetzatza, entzuteko eta lasaitzeko espazioak sortzea.
- * Dutxa luze eta beroak. Turkiar saunen erabileraren antzera. Erdialdeko Amerikan, saunak, denon artean sendatzeko espazioak dira. Emaginarekin temazcal-eant sartzen zara eta

ongizatea ematen dizu.

- * Gorputzeko ariketak, yoga. Arnasketa ariketak.
- * Makillatzeak lasaitu egiten nau, niretzat denbora izatea adierazi nahi du.
- * Lo egin aurretik irakurtzea, mugikorra alde batera uztea. Irakurketaz gozatzea, ez lanak inposatuta.
- * Barealdiak eta bakartasun guneak izaten saiatu, pentsatzeko. Nire buruarentzat denbora izatea da.
- * Musika entzun, dantzara egiteak plazer handia ematen dit.
- * Negar egiteak aske egiten zaitu, osasuntsua izan, lasai eta erlaxatuta ohera joan, negar egin. Negar egiteko denbora eta espazioa izatea. Bestearen negarraren aurrean eroso egoteko gaitasuna, eta laguntzeko eta kontsolatzeko gaitasuna.
- * Malkoak, poza edo tristura adierazteko gaitasuna. Kasu batzuetan, nolabaiteko negar egiteko debekua izan dugu, aitak negar egitea debekatu zidan, eta orain aske eta libre negar egin dezaket.
- * Ispiluan nire burua ikusi, lehen ez nintzen ikusteko gai, baina orain nire burua ezagutzen dut ispiluaren aurrean.
- * Lagunekin nire sentimenduez hitz egiteko denbora izatea. Egoera zailetan lagundu egiten nau.

- * Meditatzea, burua lasaitzea. Herri guztietan daude medita-
zio praktikak, adimena dugun gauzarik konplexuenetako bat
da, erronka handia suposatzen du guretzat, subkontzientetik
erreakzionatzen dugu orokorrean. Modu asko daude pen-
tsatzeko, burua lantzeko: ibiltzea, arnasa kontzientziaz har-
tzea, bainua hartzea.
- * Musika arretaz entzun.
- * Burua askatzeko eskulanak egitea. Eskuekin zerbait egitea,
burua erlaxatzeko. Zeramika, margotzea, nire gozamenerako
ari naizela jakitea, gustatzen zaidalako.
- * Naturan egotea, hiritik kanpo.
- * Zainketaren denbora indibidualismotik interpretatzen da ba-
zuetan. Baina ni ondo banago, kalitatezko denbora eman



diezaieket nire lagunei, nire bikotekideari, parte hartzen dutan taldeari. Horregatik, zainketaren eta autozainketaren artean lotura bat dago. Ezin naiz taldeko zaintzan jardun, zainketa pertsonalean ere aritu gabe.

- * Telefonoa itzaltzea, erabilgarri ez egotea, horrek bake handia ematen dit.

Hona hemen gogoetetan kontuan hartu ez ziren elementu garrantzitsu batzuk:

- * Hidratazioa
- * Gorputzaren kontzientzia eguneroko bizimoduan, ez bakarrik jarduera jakin batean.
- * Dimentsio espiritual lantzea: bizitzaren sarearekin, barne



izatearekin, lotura estua izateko funtsezko beharra

- * Energiaren erabilera: lo orduak eta lo ordurik onenak
- * Energia erotikoa eta sexualaren kontzientzia, nire energia bideratzen duen lekua, irteten den lekua, non kokatzen den.
- * Elkarrekikotasuna: lagunak, nire sostengua, norekin harremanetan naizen. Harreman horiek joan-etorria dute?

Azkenik, parte hartzaile bakoitzak autozaintzarako KIT bat jaso zuen: erlaxatzeko uneak bideratzeko kandela sorta, bakea, hainbeste iluntasunen artean argia izateko, argi kolektibo hori erakuntza kolektiboaren prozesu horretatik sortzen da. Infusio batzuk, landareen sendatzeko propietateak gogorarazteko, artisau xaboi bat eta olio botilatxo bat, gure azala zaintzeko, jolasteko eta gure gorputzeko txoko guztiak ezagutzeko. Azkenik, libre-txotxo bat, sentimenduak eta gogoetak idazteko eta gure barne prozesuez jabetzeko.



3.2.....

SEXUALITATEA, SEXU GRINA ALDARRIKATZEA. SAIOA HERNANDEZEN ESKUTIK

SAIOA HERNÁNDEZ-EN ESKUTIK

Kultura guztietan sexu grina jorratu izan da, baina emakumeen desira satanizatu egin izan da beti eta historian zehar ezkutatu egin da. Desioak ez du ez ordenarik ez egitura finkorik, desira grina da soilik. Izatearen funtsa da. Bizitzara ahalbidetzen duen oinarritzko kontzeptua da. Kontzeptu subjektiboa da, baina baita kulturala ere, eta ezin da betebeharrak bat gisa antzeman. Konektatzeko zabaltzea eta energia sortzeko proposamena da.

Saio hau, gorputzak berotzeko infusio batekin hasi genuen. Hotzak mugiezintasuna sortzen du, mugimendua geldiarazten du, sentitzeari uzten diogu. Infusioak beroa urdailera, hesteetara eta genitaletara eramaten du, pelbisa berotzen da eta ongizate sentazioa sortzen du. Beroak ireki, erlaxatu eta sentazio eroso emanen du; hotzak, aldiz, itxiarazi egiten du.

Ondoren, parte hartzaile bakoitzak animalia bat aukeratu eta umeske egoeran irudikatu zuen, sexu-grina gorpuzteko ariketa bat zen, animalia desiragarri eta desiratu gisa kokatzea. Gainera, masaje kolektiboko dinamika bat egin zen, kide bakoitzak esku-mugimendu batzuk jasotzen zituen beste lankide batzuen bitartez. Ariketa honetan, kontaktu fisikoa eta adostasunerako gaitasuna landu ziren. Hona hemen sortutako gogoeta batzuk:

- * Harritu egin ninduen taldeak momentuaz gozatzeko prest egoteak. Utzi aske izatea, ukitu nazatela konfiantzazko espazio batean.

- * Begiak itxita, pentsatzeari uzteko aukera eskaintzen du. Afektua eta maitasuna nabaritu ziren zainketan.
- * Oso lasaigarria, gorputza oso astuna sentitzen nuen egun horretan. Laztantzeko eta hurbiltzeko modu desberdinak sentitzen ziren. Kideen arteko aniztasuna sentitzen zen, esku leunak zituzten batzuk, beste batzuk gogorrangoak, mugimenduak eta sentsazioak aldatu egiten ziren ukitzen zizun pertsonen arabera.
- * Ukitzen dudana gutxiari eta ukitzen uzten didaten gutxiaren inguruko gogoeta eginarazi zidan.
- * Lotsa eta beldurra beti daude presente, baina denbora eta jolas gehiagorekin gehiago arriskatu dezakegu, samurtasunari eta zainketari lehentasuna emanaz.
- * Erlaxazio eta askatasun sentsazioa. Honako gaietan lotsatu egiten naizela konturatu naiz, asko kostatzen zaidala sentsazio hori eraldatzea.
- * Gero eta konfiantza handiagoa nuen gainerakoak ukitzeko. Energia ezberdinez jabetu nintzen. Esku batetik bestera aldatzea nabaritzen da, indartsuagoa, ahulagoa, esperientzia izugarri gustatu zitzaidan.
- * Migratzen dugun emakumeentzat, ukitzea asko faltan botatzen dugun gauza bat da, musuak eta besarkadak oso ohiak ziren gure jatorrizko herrialdeetan.
- * Une hunkigarriak dira. Izan ere, horrelako topaguneak ez dira

askotan ematen, gure arteko desberdintasunak izan arren, guztiok ditugu antzeko sentipenak.

- * Nire gorputza ezagutzen hastea, ez dut gozamenarekin lotura askorik, holakoak onartzen hastea.
- * Laztanak eta sentsazioak oso lotuta daude bikotearekin, baina ariketa honi esker plazerraren bestelako dimentsio batekin bat egin ahal izan genuen. Azala, sentsazioak, mugimenduak, beroa... harritu egin ninduen bikotetik haratago holakoak sentitzea.
- * Esperimentatuz soilik jakin dezakezu zer muga dituzun.
- * Erotismoan, norberekeria zalantzan jartzea genero kontua da. Gainerakoei buruz pentsatzeari uztea eta bakarrik zaintzeko aukera izatea, estimulua edozein izanda ere, edota honek eraman gaitzaken lekura edozein dela ere.
- * Gozamen sentsazioa, amian eman zure burua, ez pentsatzea, soilik sentiaraztea.
- * Proposamen berriak eta arriskatzea. Helduen sexualitatean eduki erotikoa dago. Baina gozamina haurtzarotik dakarkigun zerbait da.

Lehen eguna amaitzeko, afari bat egin zen eta dantza eta gozamen saioa partekatu genuen denon artean. Janaria partekatzea eta dantzatzea oinarritzko jarduerak dira sarea eta komunitatea osatzeko. Kultura guztietan, musika eta dantza komunitateko parte hartzea eta kohesioa sortzen duten errituak dira, gorputza eta

gozamina jardueraren ardatz gisa kokatzen dituzte. Horrela, bu-
rria deskonektatzea lortzen da, emozioekin harremanetan jartzeko
aukera ematen du tentsioak askatuz eta osasun fisikoa, espiritual
eta mentala sustatuz.

Erritmo tropikaletan aditua den Hija del Nopal artista izan zen
musika jartzailea. Hala ere, saioak hainbat tokitako musikaz osatu-
ta egon zen, aniztasun erritmikoa eta kulturala sustatzeko, jardun-
aldian parte hartu zuten emakume guztien aintzatespena lortze-
ko. Adierazpen hauek jazo ziren, besteak beste: *“musika honekin
etxean bezala sentitu nintzen”, “ufff ze ondo pasa dut”, “dantza
eta izerdi egin dut, nire kezka guztiak alde batera utziz”, “aspaldi
ez nuela dantzatzen”*. Honako aipuek, eurozentrismoaren bazter-
retan kokatzen diren adierazpen kulturalak onartzeko eta duin-
tzeko jai espazioen nahia eta beharra islatzen dute.



Foto: Marina Gallardo

3.3

METAMORFOSIA PROZESU MIGRATZAILEAREN METAFORA GISA

DINAMIZATZAILEA: CONY CARRANZA

Tximeletak 4 fase ditu: arrautza, beldarra, krisalida eta tximeleta. Fase horiek migrazio prozesuaren etapa gisa ulertzeak migratutako emakumeak beren esperientziaz gogoeta egitera gonbidatzen ditu. Metafora horrek euren une eta etapak nola bizi izan dituzte identifikatzen eta ezagutzen laguntzen du, baita haien sentimendu eta pentsaerez jabetzen ere. Garatutako metodologiak emakume hauen esperientziak ardatz gisa hartzen du, eta, beraz, emakume migratuekin eta euren ezagutzatik abiatzen da aurrera egin ahal izateko.

Arrautzak migratzeko erabakia adierazten du, eta erabaki horri eusten dioten argudioak. Beldarrak bidaia eta helmuga izendatzen ditu. Itxaropenak eta apurka-apurka desagertuz doan amets handi hura, ziurgabetasun handiko unea da. Errealitate arrazista honek uste baino ahalegin handiagoa eskatzen du: doluari aurre egiten zaio, lortzen ez den lana edota onartzen eta gutxi baloratzen diren lan apurrak soilik lortzen dira. Krisalida fasean, seme-alabak urrun izatearen sentimenduak bizi dira, familiek jatorrizko herrialdean duten presioa, zalantzak agertzen dira; baina, aldi berean, ziurtasunak ere finkatzen dira, helburu berriak zehazteko eta erabakiak hartzeko etapa bat da. Bakardadeari eta geldialdi arriskuari aurre egin behar zaie. Azkenik, tximeleta helburuak lortu diren fasea da. Etapa honetan, emakumeek parte hartze handiagoa dute gizarte bizitzan, indartu egiten dira, beste emakume migratuekin bat egiten dute eta prest daude beste proiektu batzuei aurre egiteko eta horiek eraikitzeko.

Ariketa honetan, emakume bakoitza bere burua irudikatuta sentitzen duen etapan kokatu zen; hala, zirkulu txikitan, bere gogoetak partekatu zituzten:

- * Nire ustez, migrazioari esker pertsona gisa gehiago hasi nintzen, eta horrek balio gehiago eman dit, eta ez dauzkadan tituluengatik preseski. Hori onartzeak denbora asko eman zidan, alaba ona naiz, nahiz eta inolako titulurik lortu.
- * Hemen apal izaten ikastea egokitu zait, nahiz eta nire hizkeragatik ez dirudien, kanpotarra naizela nabaritzen da. Ni maia herriaren jantzi trandizionalekin etorri nintzen hona, nire ama hemen baitzegoen. Ez nuen zailtasun handirik izan heltzean, baina nik haren onespena bilatzen nuen behin eta berriz, eta ez nuen lortu ni nire balioaz jabetu arte. Horrek nire izaera menderatzen lagun dit, beti defentsan, beti beharizan horrekin. Bertoko jendeak, nahita nahiez, beti ko-



mentario negatiboren bat botako du. Eta paperak lortzeko aguantatzen dugu hori guztia, lan egitera etortzen garelako, eta logika horren baitan, horrelako egoera asko ematen dira. Baina kontziente izan behar dut jendeak ezin duela eman ez duena, eta laguntza taldeetan parte hartzea nire buruaren kontziente izateko tresna aparta izan da, horrek indartu egingen nau pertsona gisa.

- ✳ Nahiz eta urteak pasa, ama gisa duzun kezka hori ez da inoiz alde batera uzten. Sentipen horrek presioa sortzen digu, berri ona edo txarra ematen digute eta horrek emozio mailan asko hunkitzen gaitu, seme-alabekin konektatuta gaude, gure lurrarekin, alegia.
- ✳ Talde hauek aurrera egiten lagundu naute, atzera pausurik ez egiten. Emakumeen arteko sareek eusten gaituzte. Hemen berriro bizitzen hasi nintzen, niretzat espazio eta denbora



Foto: Marina Gallardo

izatea suposatu du, lehen denbora hori , migratzearen ekarpenetako bat izan da.

- * Lan egiteko bakarrik gaude, helburu horrekin gatoz. Hala ere, askok umiliatu egiten gaituzte, baina dirua eduki arren, oso azaleko jendea da. Bertan, jendea irakasle ederrak izan daiteke, potentzial handia aterarazten baitigu.
- * Nire ilunpe uneak baliozkotzea, krisalidaren fasea haustea, une eta egoera horiek baliozkotzea. Itxuraz ahulgunea dirudi, baina gure ahalmenak eta ahultasunak ezagutzeko aukera ere eskaintzen digu, hazteko eta emakume gisa indartzeko momentua da.
- * Ez gara beti krisalidaren fase horretan geratuko, egoera aldatu egin daiteke, eta aldaketa eremu horiek ezagutzea garrantzitsua da. Normalean, istorio arrakastatsuak baino ez dira ezagutzen, baina, orokorrean, ez da antzematen horren atzean dagoen ahalegin guztia.
- * Sarean, ni bezalako beste batzuekin elkartu naiteke, beste istorio batzuk entzun eta ezagutu, espazio hau gure bigarren etxea bilakatu da. Ni gonbidapen bidez iritsi nintzen taldera, eta orain ni naiz gonbitea egiten dudana. Tailer hauei esker jendaurrean hitz egiteko nuen beldurra galtzen hasi nintzen eta nire lehen lagunak ere egiteko aukera izan nuen.
- * Migratzeak nire erosotasun gunetik ateratzea suposatu du. Han, nire herrian, ez nuen baliozkotu beharrik. Hemen, ordea, inork ez zaitu sinesten, zure hitzak ez du baliorik, sinegarritasun hori hutsetik sortu behar duzu eta horrek energia

eta ahalegin handia eskatzen du.

- * Zauri bat duzula konturatzen ez zaren bitartean, ezin deza-kezu jakin sendatzeko behar hori duzula. Eta hori prozesu kolektibo bat da.
- * Ilusioz eta itxaropenez beteta iristen zara: hau izango dut, gauza asko egingo ditut... Eta iristen zarenean, adibidez, Atzerriarren Legea, lan baimena, zuk etorkin gisa sentia-razteko arrazakeriaz kutsatutako sistema oso bat dago fin- katuta, eta egoera hau betikotzen saiatzen dena. Itxaropen horiek guztiak pikutara doaz. Harrera ere ez da imajinatzen zenuena, ez da ez gehiago ez gutxiago, baina ez da zure herrialdea bezalakoa, bakarrik sentitzen zara, zure herriaren mira egiten duzu... zure lurra, zure kultura. Hasieran espe- rientzia oso gogorra da.
- * Nik ez nuen itxaropenik, nik banekien ez nuela nire herrial- dean nuen antzeko lanik izango, banekien lan ezezagun eta prekarioagoa izango nuela. Baina, nire kasuan, zailena hiz- kuntza izan zen, nik ingelesez hitz egiten nuen eta hizkuntza horretan komunikatzeko gai nintzela pentsatu nuen, baina ez, pixka bat harroputza izan nintzen horrekin. Behin bertan egonda, dagoen horretan lan egitea eta dagoen hizkuntza ikastea besterik ez da geratzen. Erakunde batekin harrema- netan egotea oso baliagarria da, orientatu egiten baitzaitu, lagundu egiten zaitu... nik 5 urte eman nituen Madrilen bizi- tzen eta ez nuen inolako sarerik aurkitu.
- * Tximeleta izatera heldu naiz emakume askoren laguntzari esker. Ahotso altxatzeko eskubidea dugula erakutsi digute, ez kultura patriarkalak adierazten duen bezala otzan izate-

ra. Kanpokoa naiz, bai, eta emakume migratua naiz, baina kotizatzen dut, gizarteari nire ekarpena egiten diot, beraz, hemengo pertsonaren eskubide berberak ditut. Tximeleta izaten ikasten da. Hori guztia gertatu da, eta ez nintzen konaturatu, ez nintzen ohartu aldaketa horiekin guztiekin.

Antzeman daitekeenez, esperientziak askotarikoak dira. Ariketa hau oso aberatsa izan zen entzute aktiboa eta errespetuzkoa ahalbidetu zuelako, baina baita testigantzak askotarikoak izan arren, horiek guztiak desberdinkeria eta diskriminazio egiturek zeharkatzen dituztelako. Klaseak, generoak eta arrazak definitutako egiturak kontakizun horietako bakoitzean barneratuta daude; horien kontziente izateak kontzientzia kritikoa sortzeko aukera ematen du, eta emakume migratuak ez dira egoera horien biktima, maila pertsonal eta sozialean zapaltzen dituzten botere harremanak aldatzeko gai diren eragile aktiboak baizik.

Azkenik, nork bere burua zaintzeko espazio hori emakume ahaltsuek dinamizatu zutela nabarmentzea garrantzitsua da, Luna Romero eta Cony Carranzarekin atsedena hartzeko eta gogoeta egiteko denbora egon zela, eta Isabel Hernandez, Saioa Hernandez eta Hijas del Nopal taldearekin dantza, gozamina eta irria izan zirela ezaugarri nagusiak, eta Sara Álvarez eta Basoa proiektuarekin lurrarekin eta agroekologiarekin osatzeko eta berriz konektatzeko espazioa ere izan zen.

.....

GOMENDIOAK, PROPOSAMENAK ETA KONPROMISOAK

Azken atal honetan, erretiroan parte hartu zuten emakumeen ondorio nagusiak berreskuratu nahi ditugu. Hauek, atsedenerako eta harremanetarako espazioen beharraren zergatia azaldu zuten, metodologia holistikoetan oinarrituta, zaintza, autozainketa eta sare feminista horizontalak sortzea lehenesteko.

GOMENDIOAK ETA PROPOSAMENAK:

- * **Askotariko guneak sortzea:** ez dago emakume migratuak eta bertakoak benetako bizikidetzaren duten tokirik, emakume migratuak ghettoetan bizi gara, hautsi egin behar dugu hori eta euskal gizartearen parte garena aitortu behar digute.
- * **Sare feministak sortzeko kalitatezko espazioak sortzea:** mugimendu feminista artikulatzeko, topaketak egitea beharrezkoa da, denbora premiatzen ez dutenak, elkarri entzuteko topaketak, elkarlanerako konfiantza eskaintzen dutenak, elkarrekikotasunerako eta esker onerako dinamikak sortzeko, ezagutza eta konfiantza oinarritutako sareak sortzeko.
- * **Zaintzetatik pentsatu eta ekin:** atsedeen feministako espazioak erreplikatzeko, gure ahultasunak eta indarrak beste leku batetik ezagutu eta partekatzeko. Gorputzaren eta naturaren arteko harremanari lehentasuna ematen dion gogoeta gunea, baina gozamenerako, poztasunerako eta dantzarako gunea ere izatea.

- * **Metodologia birpentsatu eta gorputza ardatz nagusi gisa jartzea:** gorputzaz hitz egiten dugu gorputza erabili gabe, arretaz entzun egin behar zaio eta gorputzaren oroimena landu. Gorputzak dena erregistratzen du, hor dago bere memoria guztia.

KONPROMEZUAK:

- * **Iritsi berri diren emakumeak laguntzea:** informazioa ematea eta tramiteak egiten laguntzea, entzutea eta haien esperientziak baliozkotzea migrazioaren esperientzia kualitatiboki aldatzen duten ekintzak dira.
- * **Zainketarako denbora lehenestea:** denbora beharrezkoa da nork bere burua zaintzeko. Izan ere, gure gizarte honetan, ez dugu denborarik, are gutxiago zainketarako, eta horren zergatia ere planteatu behar dugu.
- * **Erretiroaren eta eskolatxoaren taldea aktibo mantentzea:** sare feministak sustatutako kalitate eta kultura prozesuei jarraipena ematea. Hainbat emakumerekin partekatzearen gozamena, eta sareak sortzea ahalbidetuko duen zaintzarako espazio bat izatea. Nire kasuan, kolektiboek berpizteko aukera eman didate, eskerrak eman dizkiet kontuan hartu didean.
- * **Horrelako tarte eta hausnarketa gune gehiago sortzearen alde egitea:** beti beste batzuk zaintzen ditugu, baina gure burua alde batera uzten dugu, zaintza pertsonalean eta kolektiboan hasteko garaia da. Ikuspegi teoriko hutsak edo arrazoimenetik soilik landutakoa haustea: ezinbestekoa da espazio holistikoak eta kolektiboak sortzea osatzeko.